



irakasleen txokoa ANGEL CUERDO

erreportaia IKASYS PROIEKTUA

ikasleen txokoa SARI GEHIAGO



jakintzaikastola

agenda

APIRILA

HAUR HEZKUNTZA

- "Euskaraz Bizi" eguna.

LEHEN HEZKUNTZA

- Maila guztiak: "Euskaraz Bizi" eguna.
- 3. maila: erleak eta erlauntzak aztertzeko Aikur zentrorra bisita.
- 3. maila eta 6. maila: Urdanetaren 500. urteurreneko erakusketara bisitaldia.
- 3. maila: Udalak antolatutako Ipuin kontaketa.
- 6. maila: Arantzazuko "BAKETIK" erakundera lan-bisita.

DBH:

- Maila guztiak: "Euskaraz Bizi" eguna.
- 1., 2. eta 3. mailak: "Onnobaletan autobusa" filma.
- 3. maila: Gasteizko Artiumera bisita.

MAIATZA

HAUR HEZKUNTZA:

- 3 urtekoak: Zumarragara irteera, trenez.
- 4 urtekoak: "Unanue gozogintza tailerrera", lanbidea ezagutzera.
- 5 urtekoak: "Zabalegi baserri-eskolara" bisita.
- 5 urtekoak: "Bide Hezkuntza Lanketa", herriko udaltzainen eskutik.

LEHEN HEZKUNTZA

- 1. maila: Oiangura irteera: landareen eta animalien behaketa.
- 1. maila: Veleia aztarnategira irteera: erromatar garaiko hiria.
- 2. maila: Pagosara irteera: ogiaren prozesua ikastera.
- 6. maila: "Bizi delikatu eta mugituz" gaia lantzerako Ordiziako Delikatuz Zentrorra bisita.

DBH:

- 4. maila: Jakintzako Batxilergoaren informazioa ikasleei eta gurasoel.

EKAINA

HAUR HEZKUNTZA

- 2, 3, 4 eta 5 urtekoak: ikasturte amaierako txangoa.

LEHEN HEZKUNTZA

- Maila guztiak: "Ikastolaren Eguna" festa.
- 1. eta 2. mailak: Eginora irteera: trikuharria, kobazuloa eta Nestle izozki fabrika.
- 1. maila: Kidefutakoekin "Euskal Olinpiadak".
- 3., 4., 5. eta 6. mailak: ikasturte amaierako irteerak.

DBH:

- 3. maila: ikasturte amaierako irteera Kantabriara.
- 4. maila: ikasturte amaierako irteera Saloura.
- 1. eta 2. mailak: ikasturte amaierako irteera Villanañeko (Araba) Angosto kanpinera.

Eguzkia lotan, Jakintza dantzan

Ekainaren erdira iristen ari garen honetan, badirudi eguzkia lotan dagoen bitartean zeruko iturriak irekita jarraitzen dutela. Hori da bota beharra hori! Eguzkia lotan esan dugu eta bere orde berogailuak martxan. Oraindik neguko arropak eta zamarrak ezin gorderik gabiltza armairuan. Naturaren egute-giak honelako kapritxoak dauzka. Bestelako kontuak aipatu behar dizkizuegu Jakintza ikastolaren egutegian edo joan etorrian. 40. urte honek eman digu buruhauste eta neke ugari, baina gauzak ondo ateratzen direnean umorea ere aldatu egiten zaigu. Bete bete izan dugu azken hiru-hilekoa ospakizunei dagokionez. 250 ikasle ohi elkartu ginen Ordiziako Plazan eta arratsa eta gauaren zatia ederrak izan ziren. Hori gutxi balitz, 500 pertsona elkartu ginen giro ederrean, ekainaren 1ean Beti Alai pilotale-

kuan. Ondo merezitako omenaldi xumea eskaini genien Jakintza ikastolako irakasle ohiel. Egunaren amaieran jendeak galdera hauxe egiten zuen: hurrengoa noiz?

El invierno todavía se nos resiste y sigue dándonos sus últimos coletazos; pero para cuando sus caprichos den paso a los rayos del verano nosotros ya estaremos finalizando este curso. Será entonces cuando volvamos la mirada hacia atrás y recordemos con orgullo todo lo logrado. Quedarán en nuestra memoria las anécdotas de los exalumnos reunidos en 1 plaza, las más de 500 personas celebrando nuestra fiesta anual el 1 de junio, la emoción del pequeño homenaje ofrecido a quienes fueran nuestros profesores...y esperaremos ilusionados que también el próximo curso sea tan fructífero como éste que se nos ha ido.

Batxi 2ko ikasleak eta tutoreak



Goian: Errobi Imaz, Iñaki Paris, Eneko Novo, Xabi Mendez, Eneko Duran, Ignazio Crehuet, Imanol Ormaetxea, Unai Perez.

Behean: Ihintza Mendizabal, Marta Ortega, Amaia Urteaga, Ariane Harto, Alain Perez.

Goian: Beñat Arregi, Aitzol Idiarte, Eñaut Agirre, Izaia Nuñez, Nerea Imanol Mendizabal, Xabier Luis. Behean: Leire Garmendia, Maialen Barreiro, Elena Diez, Sara Agirre, Martinez, Irati Romero, Leire Bosque.



Irailean no...

Opor luzeak aurrean ditugunak. Halere ez ahaztu iritsiko dela iraila. Ondorengo taulan ikus dezakezue etapa bakoitza noiz hasiko den irailan.

Etapa	Data	Ordutegia
Haur Hezkuntza	Irailaren 8tik-19ra	Goizeko 9:00etatik 12:30era
	Irailaren 22tik aurrera	Goiz eta arratsalde
Lehen Hezkuntza	Irailaren 8tik-19ra	Goizeko 9:00etatik 12:30era
	Irailaren 22tik aurrera	Goiz eta arratsalde
DBH	Irailaren 5ean aurkezpena	Goizeko 11:00etan
	Irailaren 8tik-19ra	Goizeko 8:30etatik 14:30etara
	Irailaren 22tik aurrera	Goiz eta arratsalde
DBHO	Irailaren 11ean aurkezpena	Goizeko 11:00etan
	Irailaren 12tik aurrera	Ordutegi arrunta

2007-2008ko deklamazio sari bat Jakintzara

Urteak daramatza Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila lehiaketa hau antolatzen. Izenburuak dioen bezala, lehiaketa horretan ikasleak euskaraz irakurtzeko/deklamatzeko duten gaitasuna eta erraztasuna baloratzen da.

Lehiaketa euskararen normalizazio eremuan kokatzen da. Alegia, badu lotura euskararen ezagutzarekin eta erabilerarekin. Horrela, ohikoa izan da, D eremuan behintzat, ingurugiro euskalduneko eskolak izatea irabazle.

Jakintzan, geure curriculumean horrela zehaztuta dugulako, aztergai eta langai dugu ahozotasuna, eta horren barnean, besteak beste, jendaurreko irakurketa. Beraz, Abelino Barriola lehiaketa aitzakia aproposa izan da aipaturiko edukiak lantzeko. Eta horrela egin dugu zenbait urtetan.

Aurten, Jakintzako guztion pozerako, DBH 2ko B taldea izan da irabazleetako



bat DBHko D ereduaren artean. Lehiaketa garrantziko honetan 117 taldek hartu du parte eta guztira 2.520 ikaslek.

Eta Eusko Jaurlaritzatik zorion beroak ez ezik, sari ederrak ere jasoko ditugu. Horrela, DBH 2ko B taldeko ikasle guztiek 2008ko urriaren 7tik 10era Hondarribiako aterpetxean egonaldi ordaindua izango dute. Eta irakasle arduradunak, berriz, hamar eguneko bidaiara izango du Errumaniara.

Siguiendo nuestro proyecto curricular, uno de los principales objetivos de Jakintza Ikastola es impulsar la expresión oral. Intentando responder a este reto, desde hace años veníamos presentándonos al concurso de lectura/declamación Abelino Barriola. Ha sido inmensa nuestra satisfacción al comprobar que el grupo 2B de DBH ha resultado galardonado en esta última edición. ¡Enhorabuena por el premio y por la bien merecida recompensa!

Coca-Cola idazketa saria

Aurten, Coca-Cola Fundazioak "Crea tus textos" proiektua jarri du abian. Proiektua sarean eta gelan gauzatzen den idazketa mintegi bat da. Aldi berean, partaide diren ikasleek idatzitako testuen komunitate birtuala osatzen da sarean. Bertan, denek denek idatziak irakurri, bukatu, komentatu eta baloratzen dituzte.

Dagoeneko lehenengo ariketa bukatu dugu. Bigarrena eta azkena, berriz, maiatzean burutuko dugu.

Lehiaketako irabazleak hautatzeko bi iturritako botoak hartu dira kontuan. Alde batetik, adituz osatutako epaimahaiarenak, eta bestetik, partaide guztienak. Horrela, aurten, Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko irabazle Jakintza ikastolako Garazi Otegi ikaslea hautatu dute. Kontu izan hamazazpi milatik gora idazketa izan



direla. Saria, beraz, garrantzikoa da. Norbaitek idazketa hauek guztiak ikusi nahi baditu, hona web orria: creatustextos.net. Zorionak, Garazi.

La Fundación Coca-Cola ha llevado a cabo un proyecto de escritura de textos virtuales en la red. Todos los participantes a nivel estatal han leído, analizado y valorado los textos escritos presentados y posteriormente han ido haciendo sus aportaciones. Para designar a los premiados se han utilizado dos tipos de criterio; por un lado, el del jurado y por otro, el del resto de los alumnos participantes. Entre los más de diecisiete mil trabajos presentados ha resultado galardonado con el primer premio a nivel de la comunidad autónoma el realizado por Garazi Otegi.

Gure bertsolariak

Maiatzaren 16an neska mutikoz osaturiko taldea joan ginen Alegiara Eskolarteko Bertso Paper lehiaketan parte hartzera.

Alegiara iritsi orduko jaso zituzten beren lanerako karpetak eta inguruko ikastola eta eskoletakoekin batera, sormen lanari ekin zioten. Batzuk ordu erdia, beste batzuk ordu osoa, majo saiatu ziren errima eta arrazoiak bilatzen.

Oso bertso politak osatu zituzten eta epai mahiak ere hori esan du, izan ere, Jakintzako ikasle den Xabier Mendizabalek aipamen saria lortu baitu bere adinekoen artean.



Bat-batekoari dagokionez, Jakintzan DBHOn dagoen Ainhoa Mujikak Gipuzkoako finalean kantatzeko txartela lortu zuen.

El pasado 16 de mayo un grupo de alumnos de Jakintza tomó parte en el certamen escolar de "Bertso-Paper". En la edición de este año celebrada en Alegi ha resultado galardonado con una mención especial nuestro alumno Xabier Mendizábal. A reseñar también que Ainhoa Mujika ha conseguido clasificarse para cantar en la final.

IKASYS PROIEKTUA

Ikasteko metodologia berria da, banakakoa...

Ikastolen Elkarreak bere aitzindaritzaren eta esperientzia frogatuak dituen hezkuntza eremuak I+G+B egitasmoak eta proiektuak burutzean eta euskal eskolaren gestioan, oro har. Informazio eta Komunikazio Teknologia (IKT) alorrean 15 urte baino gehiagoko eskarmentua metatua du eta euskarazko eta euskal kulturaren ardatzako software kurrikularra eta aisialdiko ekoiztean aitzindaria izan da.

Ikastolen IKT planak bi helburu ditu. Lehenengoa, derrigorrezko irakaskuntza amaitzerakoan, ikasleek, garatu behar diren gaitasunen artean oi-narrizko IKT konpetentziak barnerratu eta IKTen erabilita, beste arlo edo ikasgaien ikasketa hobetzea lortzea. Bigarrena, IKTak txertatuz, ikastolen antolaketa eta kudeaketa eredu egokiak arakatu eta proposatzea.

Lehenengo helburuarekin lotuta Gipuzkoako Ikastolen Elkarrearen bitartez, irakaskuntza-hezkuntza prozesuan lagunduko duten baliabide kurrikularrak sortzen ari dira. Marko horretan koka dezakegu IKASYS Proiektua.

IKASYS Proiektua, norberak gela arruntan bere ordenagailuaren bidez hainbat eduki barnerratzeko sistema da eta tresna informatikoak, aplikazio informatikoak eta edukiak uztartzen ditu.

Ortaingoz Lehen Hezkuntzako bost ikasgaietarako metodologia anitzeko jarduerak sortu dira, baina laster DBHrako edukiaren sorruntzari eta antolaketari ekingo zaio, horrela, proiektua derrigorrezko hezkuntza osora hedatuko delarik.

Horren guztiaren berri zuzenagoa jaso dezakegu Maite Gomez Leterengana jonduguz, proiektuaren zuzendaria denez, galderatxoan zehaztasuna kontuan hartzen da. Eta bestetik, ikasleak ariketak egin ahala, aplikazioak zuzendu egiten dizkio. Zuzenketa prozesua bat-batekoa da, eta gainera, irakasleak aldiro ikaslearen lanaren jarraipen zehatza egiterik ere badu.

Nolaz eta zeri erantzuteko sortu zen proiektu hau?

Ikastolen Elkarreak sortutako proiektu hau, aspaldian hezkuntza-mailan ageri diren behar batzuei erantzuteko sortu zen. Zenbait eduki ariketetan trebatuz edo memorizatuz barnerraten dira eta behar hauei erantzuteko Ikasys Proiektuak eskaintzen duen aukera ukaezina da.

Hitz gutxitan esanda ikasteko metodologia berritzaile har genezake?

Noski baietz. Lehen aipatutako trebatze eta memorizatze prozesuetan ere alde handia izaten da ikasletik ikaslara, arrazoi anitzengatik



Maite Gomez

denen beharrak ez baitira berdinak. Ikasle guztiek ez dituzte jarduerak berdinak behar izaten, edukiak barnerratzeko behar den denbora eta ariketa kopurua ere ez da berdina denentzat.

Hori guztia ikaslearen motibazioaren, testuinguruaren, estrategia mentalen eta, oro har, bere beharren eta gaitasunen menpe dago. Alde batetik, Ikasys Proiektuaren bidez ikasle bakoitzari behar dituen jarduerak eskaintzen zaizkio, ikasle bakoitzaren errotaren errotua errespetatzen da ikaslearen autonomia bultzatuz, hau da: ikaslearen autonomia kontuan hartzen da. Eta bestetik, ikasleak ariketak egin ahala, aplikazioak zuzendu egiten dizkio. Zuzenketa prozesua bat-batekoa da, eta gainera, irakasleak aldiro ikaslearen lanaren jarraipen zehatza egiterik ere badu.

Ikasketa modu honek ze berrikuntza ekarriko dio orain arte erabilitako moduari?

Orain arte, lehen aipatutako behar horiei erantzuteko era askotako baliabideak erabili izan dira: ariketa liburuak, fitxak, fotokopiak, sakontze jarduerak... Baliabide hauekin, nolahi ere, ez da egon aukerarik ikasle bakoitzari egokitutako jarduerak eskaintzeko, ikasle guztiek ariketa kopuru bera egiten dute eta irakaslearentzat oso zaila bilakatzen da ariketen zuzenketa eta jarraipena era zehatzean egitea.

Ikasys Proiektuaren bidez, huts horiek zuzendu nahi izan dira. Horrela, ikasle bakoitzak aukera izango du bere beharrei egokitutako ariketak egiteko, gainera, ariketen zuzenketa bat-batekoa izango da, ez du zain egon behar irakasleak bere lana zuzendu arte. Eta zer esanik ez, irakaslearentzat ere abantailak ekarriko ditu: zuzenketa automatizatuaren bidez denbora aurreztuko du, aukera izango du heziketa lanean sakontzeko eta gainera, irakasleak uneoro ikaslearen lanaren jarraipena egiterik izango du.

Kostua ere izango du proiektua gauzatzeko horrek.

Nola ez! Proiektua garatzeak esfortzu handia eskatu digu, Ministerio de Educación y Ciencia, MECetik jasotako dirulaguntza garrantzitsua izan da adibidez.

Irakaskuntzako moduak eta bideak berritze hori kezka berria al da?

Ez, aspaldian gure artean daude kezka horiek. Ikastolen Elkarrea bere IKT planaren bidez, heziketa munduan lagunduko duten eta Ikasmateriazintza Proiektuarekin bat datozen baliabide curricularrak sortzen ari da. Lehendik aurrekariak baldin badaude ere, bereziki azkeneko zortzi urteetan trebatzeko eta buruz ikasteko jarduerari erantzuna emango dien Ikasys sistema berritzaile egituratzen ari da.

Teknologia berrien benetako integrazioa, orduan.

Bai horixe. Proiektuaren aplikazioak arlo desberdinetako curriculumetan Informazio eta Komunikazio Teknologien (IKT) integrazio egokia ahalbidetzen lagunduko du eta bide batez, informazioa bilatzeko, prozesatzeko eta komunikatzeko konpetentziak bermatuz, ezagutza garatzeko gai diren ikasleak hezteko ere baliagarria izango da.

Orain arteko aurkezpenetat hartuta, zein litzateke proiektuaren helburu nagusia?

Zailtasunaren arabera mailakatutako tipologia anitzeko jardueretan oinarritutako entrenamendu sistematikoaren bidez, jardun konpetente baterako aurretik behar diren jakinbideak finkatzea, ezagutzak egituratzea eta beharrezkoak diren gaitasunak garatzea da proiektuaren helburu nagusia.

...zailtasunaren arabera sailkatu dira galderak

Proiektua bera nola deskribatuko zenuke? Nabarmendu itzazu zeregin garrantzitsuenak.

Ikasys Proiektua, norberak ordenagailu bidez ikasteko sistema da. Tresna informatikoak, aplikazio informatikoak eta edukiak uztartzen ditu. Hau da, eskola beharretara egokitutako tresna informatikoak, jarduerak sortzeko, erantzuteko eta horien jarraipena egiteko egokiak diren aplikazio informatikoak eta edukiaren esparruan, tipologia zabaleko eta arloka eta zailtasunaren arabera mailakatutako jarduera multzoa eskaintzen ditu. Zereginak direla eta, horiek dira nagusienak: trebatzeko eta memorizatzekeo jarduera bilduma eskaintzen du alde batetik, eta bestetik, ikasleari bere gaitasun eta erritmora egokitutako jarduerak eskaintzen dizkio era autonomoan eta indibidualean lan du ditzan.



Edukiak zeintzuk dira?

Edukiei dagokienez, momentuz, Lehen Hezkuntzako (6-12 urteko ikasleak) Euskara, Gaztelania, Ingelesa, Ingaruna eta Matematika arloetan zailtasunaren arabera mailakatutako tipologia anitzeko jarduera multzo handia eskaintzen du, guztira 200.000 bat ariketa.

Proiektuak ba al du beste batzuekiko loturarik, ala isolatua da?

Isolatua ez, noski ezetz. Edukien egituraketa guztia adibidez oso lotuta dago Ikastolen Elkartearen garatutako bestelako proiektuekin, Txanela Proiektuarekin besteak beste.

Nor edo nortzuk arduratu dira/zarete proiektua burutzekoan?

Tresna informatikoen azterketan eta aplikazio informatikoen sorkuntzan Gipuzkoako Ikastolen Elkartearen lanean ari den IKT taldea. Edukien sorkuntzan eta zuzenketan ikastola desberdinetako profesional talde zabala aritu da lanean, esan beharra dago horrek ere proiektuari behar duen sendotsuna eta bermea eman diola. Jakintza Ikastolako talde bat ere eduki sorkuntzan aritu da beste ikastola batzuetako kideekin batera.

Beste erreferentziarik izango zenuten

Edukiak eta jarduera tipologiak konpetentziekin lotu nahi izan dira eta horretarako, euskal curriculumaren proposamena izan da erreferente esanguratsua.

Aplikazioa erabatekoa da edo zenbait fasetan banatua dago?

Proiektuaren aplikazioa fase desberdinetan egingo da. Orain arte, Ikasys Proiektuak ez du inolako aurrekaririk izan gure artean eta hori dela eta esperimentazioaren beharra ukazina da. Proiektuaren esperimentazioa Lehen Hezkuntzako *bigarren*, *laugarren* eta *seigarren* mailetan aipatutako bost arloetan egingo da, eta bi fasetan. Lehena, 2007-2008 ikasturteko azkeneko hiruhilabetekoan gauzatzen ari da hiru ikastoletan eta bigarrena aldez, 2008-2009 ikasturtean zehar egingo da Euskal Herriko hamasei ikastoletan. Esperimentazio fase horiek Euskal Herriko Unibertsitate bideratutako ebaluazio prozesu sakona jasango dute.

Nola gorpuztuko dira fase horiek, eta ze helburu du bakoitzak?

Lehenengo esperimentazioaren helburua programa hiru ikastoletan abian jartzea da eta gero hamasei ikastoletan aplikatuko da. Lehen fase horretan, *beraz*, sistemaren funtsezko alderdien ebaluazioa egingo da, alderdi horietako arazo nagusienak zein diren aztertu eta horiek zuzenduko dira. Horrela, bigarren esperimentazioa berme handiagoarekin martxan jartzeko aukera izango dugu. Bigarren fasean, lehen faseko aspektuez gain, ikasleen errendimendua eta autoerregulazio gaitasuna ere ebaluatuko dira.



Eratzen al da nolabaiteko kontrolirik, lortpenak edo emaitzak neurtzeko (baloratzeko) modurik?

Lehen aipatutako moduan, bi esperimentazio fase hauetan ebaluazio zehatza egingo da eta ikastoletako kolektibo guztiak hartuko ditu: ikasleak, irakasleak, gurasoak eta ikas-tetxeetako zuzendariak eta arduradunak.

Horrela izango da hobekuntzak aplikatzeko aukera eta biderik.

Ba bai, ebaluazioak emandako datuek ekarriko dute proiektuaren egokitzapena eta hobekuntza, etorkizunean proiektua ikastola guztietara eta oro har euskal eskolara hedatu ahal izateko. Bestalde, ezin ahaztu, momentuz Lehen Hezkuntzara bideratutako proiektu honek jarraipena izango duela Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan. Zabalkuntza hau epe oso laburrean jarriko da abian eta ez dago zalantzarik aurretik egindako ebaluazioetatik ondorioztatutako datuak baliagarriak izango direla.

Zerbait gehiago esan nahi al duzu?

Ez. Nik uste ulertzeko moduan adierazi dugula proiektuaren berri. Orain ez zaigu geratuko probatu eta gozatzea besterik. Ea horrela gertatzen den. Saiatu behintzat saiatuko gara.

Jakintzako IKASYS taldea

Gure ikasleei bideak errazten

Idoia Arteaga, Ainhitze Lasa, Mertxe Saez de Egilaz eta Marian Iturrioz ditugu Jakintzako IKASYS sietemaren arima

IKASYS proiektua gertuagotik ezagutzearen Jakintza ikastolak izan duen partizipazioa jakin nahi genuke. Horretarako, gure ikastolako irakasleak hartu ditugu, eurek egin duten lanaren berri eman diezagun.

Zuek nola hasi zineten IKASYS proiektua garatzen?

Ainhitzek: Aurreko koordinatzaileak aurkeztu zuen Jakintza etapa guztietan.

Marianek: Gero, proiektua LHkoa zelako, zuzendaritzak gu lauoi proposatu zigun: Ziklo bakoitzetik bana gaude: ni lehenengo ziklotik, Ainhitze bigarrenagotik, Mertxe hirugarrenagotik eta Idoia koordinatzaile

Zer da zuek laurok egin duzuen?

Marianek: Iaz urtarrila arte egin genuena material osoa sortzea izan zen, eta maiatza bitartean material hori sekuentziatu eta antolatu egin genuen.

Ainhitzek: Ekainetik urtarrilera sortzen aritu gara, antolatzen eta abar, Donostiara joanda. Dagoeneko dena sailkatuta dago: gaiaren, mailaren eta zailtasunaren arabera.

Mertxek: Bost ikasgaitan dena sortuta daukagu, arlo bakoitzeko arduradun baten esanetara.

Idoiak: Maiatzetik aurrera pilotajea hasi zen hiru ikastoletan. Ondoren besteetan jarraituko du.

Lana antolatzekean liberatutako norbait izan al duzue?

Idoiak: Hemen ez zen liberaturik egon. Hainbat ariketa egin behar zirela esan ziguten, eta besterik ez. Bakoitzak lana nahi edo ahal zuen moduan egin du.

Mertxek: Ikastetxe bakoitzak bere antolaketa izan du.

Laguntzarik jasoko zenuen...

Mertxek: Bai, bazegoen koordinatzaile bat, eta azkenean laguntza handia eman ziguten.

Ainhitzek: Denok elkarrekin, bai gu, bai koordinatzaile, eta bai informatikoak

joan gara pixkanaka materiala osatzen, ikusitako beharren arabera, sortu ahala.

patxadarekin, bai baitakite ze ezinaren aurrean aurkituko garen.



Hezkuntza modu aldaketa sakona da. Ze eragozpen sortu zaizkizue?

Marianek: Hasieran gauza ez zegoen oso garbi, bakoitza bere aldetik ibili zen.

Mertxek: Lehenengo aukeratzeko gure ze modulu, ze gauza landu behar genuen. Banaketa egindakoan ariketak sortu genituen. Gero koordinatzaileak ikuskatzen zituen ariketak. Balio ez zutenak aparkatu eta berriak sortuz... Horrela ibili ginen.

Idoiak: Ariketekin bi motatako arazoak genituen: bata ariketa bera, egokia aurkitu nahi zelako eta gero informatikoa, hura sistemarentzat baliagarria bilakatzeko. Askotan guk eduki aldetik behar batzuk ikusten genituen, eta informatikoak ez ziren gure behar horietaz jabetzen. Hasierako egokitze-arazoak, jakina.

Ainhitzek: Izan ere sistema honek ez ditu zenbait ariketa onartzen, tipologia batzuetakoak baizik. Ariketa irekiak ez ditu onartzen.

Mertxek: Eta gauza asko aldatu ziren, ariketa mordoak sortu, eta gero balio ez zuelako bota ere bai makina bat.

Marianek: Azkenean, halere, horri ere esku hartu genion. Orain, jada, beste era batera antolatzen dute, eta beste

Ez da orduan egindako guztia alferrikakoa izan...

Idoiak: Proiektu honetan, gainera, lana ere bi eratak gertatzen zaigu: bat materiala sortzea da eta bestea material hori martxan jartzea, material horren pilotajea egitea, alegia.

Mertxek: Lan berria izateak uste dut penatu gintuela gehien.

Marianek: Proiektu guztiak bezala traba asko dituzte, eta oraindik ere gauzak konpontzen ari dira.

Programak berak kontrolatu eta baloratzen ditu erantzunak.

Mertxek: Bai, hala da. Horratik programak ariketa itxiak behar ditu, erantzun bakarrek galderak, alegia.

Idoiak: Gauza mekanikoa da, erabat.

Proiektu osoa kontuan hartuta, zer da orain arte gehien gustatzen zaizuen? Zer abantaila ikusten dizkizue?

Idoiak: Ume bakoitzak bere eritimoa eraman dezakeela. Edo ume bakoitzari bere eritimo aparta, gehiago sakondu behar duen horretan aritzeko aukera ematen du, eta zuk berari jarraipen bat

...ikastolan sortutako materiala da

egiteko, zein alorretan behar duenari erantzuteko.

Ainhitzek: Hain zuzen, ikasle bakoitzak ordenagailua piztu eta itzali bitartean egin duen guztia ikustea ahalbidetzen digu.

Marianek: ...era guztitara, gainera: barka, taldeka, gela osokoa...

Ainhitzek: Zenbait editorialetan ikusten da materiala ez dela denboratan aldatu. Beraz, honen abantailen artean dago edukiak ikastola bertan sortuak direla.

Mertxek: Egia: umeentzako zerbait egiteko ume horiekiko gu gaude gertuen. Gertu egote horrek abantaila handia ematen du...

Idoiak: ...haurren garapena hobeto zaindu eta bideratzeko aukera, noski.

Mertxek: Eta balorazioa zorrotzagoa da horrela eginda.

Horrek guztiak ez al ditu mugak ipiniko: gelak murriztak, irakasle trebeagoak...?

Ainhitzek: Muga batzuk badauzka, baina funtzionatzekoan gelako batz bes-tekoa dago eremu horretan, eta norbait hortik oso behera edo oso gora, nabarmen geratzen bada, eta orduan, horiek dira arreta berezia eskatzen dutenak, jarraitu beharrekoak.

Idoiak: ...ez dago denak banan bana zertan bereizirik.



Irakaslearen aldetik zein izango litzateke lan egiteko modua?

Ainhitzek: Hasieran ariketa horietatik irakasleak aukeratuko ditu behar dituenak. Adibidez: ikasle batek fonetika arazoak baditu, bada fonetikako ariketak egin beharko ditu irakasleak guk egindakotik aukeratuak.

Ze fasetan dago lana: aurreratuta, amaituta, aplikatzen haste-ko zorian...?

Mertxek: Amaituta oraindik ez. Sistema etengabeko da, baina ariketak bukatuta daude.

Ainhitzek: Sekuentziak prest zeudenez, lehenengo pilotajea Aste Santuaren ondoren hasi zen.

Marianek: Hurrengo pilotajeak datorren urtean, kurtsioan, hasiko dira, Lehen Hezkuntzako bigarren, laugarren eta sei-garren mailetan izando dira.

Pilotaje egiten ari diren eskola horietan zenbat denbora eskaintzen die astean?

Ainhitzek: Bakoitzak astean ordu erdia eskainiko dio Ikasys sisteman gai bakoitzean, ordu erdiko saioa edukiko du. Bost ikasgaiekin astean 2,5 ordu, beraz. Eta beste ordu guztietan lehen bezala.

Mertxek: Sistema hau ez da aurrekoaren ordezkoa, osagarria baizik.

Eta laguntza teknikoa...?

Marianek: Nahiz eta antolaketa areago izan den behetik gorako goitik beherakoa baino, beharrak ikusi ahala, guk eskatu materialak denak eman izan zaizkigu.

Ez duzue talde isolatu gisan funtzionatu.

Idoiak: Ez, ez, ez. Gero hilean behin edo biltzen ginen han, Donostian, eta han azaltzen genituen bakoitzak berea, ekarpenak, bere eskakizunak, bere kezak...

Gustura zaudete orain arte egindakoa-ekin?

Marianek: Lan handia izan arren, bai. Gainera talde-lan polita izan dugu. Gure artean ez dugu inolako arazorik eduki.

IKASYS es un proyecto innovador desarrollado por la Federación de Ikastolas. Es un proyecto para que cada alumno adquiera ciertos contenidos utilizando su propio ordenador y que está formado por herramientas informáticas, aplicaciones informáticas y contenidos.

Las herramientas informáticas, están formadas por dos componentes principales. Por un lado, un miniordenador portátil y por otro lado, un armario para el almacenaje de dichos miniordenadores. Este armario sirve también para la carga de baterías y para la conexión a la red WIFI.

Las aplicaciones informáticas están formadas por tres aplicaciones web. La función de la primera es la creación y organización de contenidos, la segunda ha sido creada para la ejecución de ejercicios en el miniordenador y la tercera para que el docente pueda hacer el seguimiento del trabajo de los alumnos.

Respecto a los contenidos, hasta ahora se han elaborado actividades de variada tipología para las áreas de lengua española, euskera, inglés, matemáticas y conocimiento del medio de la Educación Primaria, pero pronto se va a proceder a la creación y organización de contenidos de la educación secundaria Obligatoria y así el proyecto podrá abarcar toda la educación obligatoria.

Este proyecto viene a cubrir ciertos vacíos identificados hace tiempo en materia educativa. Por un lado, el proyecto ofrece

recursos adecuados para asimilar los contenidos que necesitan de ejercitación o memorización. Por otro lado, tiene en cuenta la diversidad del alumnado, ya que las actividades están adaptadas a las capacidades y necesidades de cada alumno. Para terminar, mediante la aplicación del proyecto se puede hacer un seguimiento más exhaustivo del trabajo efectuado por los alumnos.

El proyecto está en fase de experimentación. Tal experimentación se llevará a cabo en diversas ikastolas durante el curso 2008-2009 y al final se le realizará una evaluación detallada. A continuación, se procederá a la integración de las mejoras propuestas en la fase de experimentación y así estará a punto para su extensión a todas las ikastolas y en general a toda la red educativa.

Hay que tener en cuenta también que el proyecto ha sido creado para dar respuesta a unas necesidades didácticas y tecnológicas concretas y que no se podrá aplicar a todo lo que se realiza en el aula. Lo que se haga en el futuro vendrá a complementar el trabajo actual. Todo lo que se ha hecho hasta ahora tendrá su lugar en el futuro, pero seguramente, si se integran de manera adecuada estos recursos se podrá responder efectivamente a muchas de las dificultades surgidas hasta ahora.

Ikasle ohien afaria

Jakintza ikastolaren 40. urteurrena dela eta apirilaren 26an, larunbatez elkartu ginen 240 pertsona Ordiziako plazan. Arratsaldeko 20:30etatik aurrera jende ugari hurbildu zen plaza inguruan. Batzuk afaria prestatzen ari ziren bitartean, beste batzuk pantailan agertzen ziren argazkiei begira ziharduten.

Gaueko 21:00ak aldera Igor Egurenek ongi etorria eman zien ikasle ohi guztiei eta hasiera eman zitzaion Erramun Amundarain eta bere koadrilak prestatutako afariari.

Laster atera zuen Aitor Furundarenak bere eskusoinua eta horrekin batera kantatzeari ekin genion. Errepertorio zabala eskaini zigun Furundak. Giro ederrean abestu genituen Benitoren Erribera, Baldorba edo Nire herriko neskatxa maite. Abestu genituen baita ere Anje Duhalderen Eperrak, Xabier Leteren "Adiskide bat bazen" Edo Mikel Laboaren "Hegoak ebaki banizkio" azken abesti hau Juanita Amundarain eta Ana Altunaren omenez.

Horrelakoetan gertatzen den moduan aspaldiko adiskideekin egon, kontu kontari jardun eta garai bateko kontuak gogoratzearekin batera, argazki ugari atera genituen.



Con motivo de la conmemoración del cuadragésimo aniversario de Jakintza Ikastola el pasado 26 de abril, 240 exalumnos se reunieron en una bonita jornada en la plaza de Ordizia. Tras la bienvenida a manos de Igor Eguren, todos ellos dieron buena cuenta de una sabrosa cena preparada por Erramun Amundarain. Aitor Furundarena puso la nota musical y todos los presentes rindieron un entrañable homenaje a quienes fueran sus andereños, Ana Altuna y Juanita Amundarain. Una bonita experiencia llena de nostalgia y emoción.

Alkate jauna Jakintza ikastolan

Maiatzaren 16an, Ordiziako alkatea, Jose Miguel Santamariaren bisita izan genuen Jakintza ikastolan. Goizean goiz etorri zen ikastolara eta dagozkion harrera eta ongi etorria eman ondoren, Jakintza ikastolaren berri eman genion, zertan ari garen, gure erronkak eta baita ere aurreikusten ditugun inbertsioen berri ere.

Jose Miguelek gogo handia agertu zuen ikastolako bizia ikusteko, alegia ikasleekin egoteko. Oso polita izan zen gure txiki-txoek egindako harrera. Ikasleez inguratuta, hantxe jardun zuen gure ikasleek egindako galderak erantzuten. Horrelakoetan gertatzen den moduan, argazki ugari atera genituen.

Ikasleak eta gelak ezagutzeaz gain, Jakintza ikastolako instalazioak ere gertutik ezagutzeko parada izan zuen.

Kafea eta pasta batzuk janez eman genion amaiera bisitari.

El pasado 16 de mayo Jose Miguel Santamaría, alcalde de Ordizia, realizó una visita a nuestra ikastola. Tuvo la oportunidad de conocer



de primera mano nuestra actualidad y siguió con gran interés la exposición que se le hizo de nuestros planteamientos, retos y plan de inversiones. Resultó llamativa la acogida que le dispensaron los más pequeños, así como la batería de preguntas y solicitudes con que le bombardearon.

Jaialdia Haur Hezkuntzan

Urtero bezala, aurten ere, apirilaren 18an, HHko ikasleek ilusioz beterik, dantzak, abestiak, txistek eta magia eskaini dizkie gurasoei. Horretarako, aurreko asteak entsaioetan eta jantzien prestatketetan aritu dira buru-belarri, bai ikasleak baita irakasleak ere.

Eskainitako egitaraua honako hau izan da:

2 urtekoak... "Dindangolo-golo" dantza

3 urtekoak... "Dutxan dardaraka" dantza

4 urtekoak... "Aitatxo sofa gainean lotan" dantza. eta

Let's go in the train gogo" antzerkitxoa ingelesez.

5 urtekoak... "Txistek, abestiak, magia eta

"Sorgintxo txikia" dantza..

Lotsak alde batera utzita, haurrek seriotasunez eta ilusioz bete dute bere papera, txalo zaparrada jasoz.



Jaialdia oso arrakastatsua izan da. Ikusle artean, guraso, aiton-amonak, izeba-osabak eta zaintzaile asko izan dira, eta esan digutenez oso arratsalde atsegina pasatu dute.

Hori horrela izanik, datorren urtean ere, hemen izango gaituzte indar berrituta dantzatzeko asmoz

Tal y como se viene haciendo todo los cursos, el pasado 18 de abril los alumnos de Infantil ofrecieron a sus padres una bonita actuación llena de alegría, música y baile. A los sonos de "Dindangolo-golo", "Dutxan dardaraka" y entre pequeñas representaciones teatrales mostraron a sus allegados todo lo que con tanta ilusión y entusiasmo habían preparado.

¡ Y ya están de nuevo dispuestos para el próximo año!

ANA USABIAGA

Goierriko eskualdea txirrindulari ospetsuen harrobia izaten jarraitzen du. Jokin Mujika, Aitor Garmendia eta Dioni Galparsoro izenei Ana Usabiagarena gehitu behar diogu berak azken urte hauetan izan dituen lorpenak kontutan hartuz. Ana txirrindulari berezia dugu. Errepidean ondo moldatzen da eta txapeldun handien moduan azken metroan gutxi izaten dira Ana gainditzeko gaitasuna eta kemena dutenak. Pistan hasi berria eta dagoeneko Espainiako txapelketan urrezko 6 domina eta zilarrezko bat eskuratu ditu. Francesco Mosser-en geroztik ez da ezagutu txirrindularitzan bi modalitate hauek hain ondo menperatzen duen txirrindularirik. Horretaz gain, Jokin Mujikaren pausoak jarraituz, ziklo krossean ere oso trebea dugu Espainiako txapelduna izanik. Horregatik, Ana Usabiaga txi-



rrindularien artean, espezi berezi bateko talde batean sailkatu behar dugu: killer-ak. Ez dute arerioarekiko gupidarik eta aukeran dituzten garaipen guztiak lortzen dute. Bide hau jarraituz gero, etorkizunean bere izena Jannie Longo eta Joanes Somarribaren aldamenean ikusiko dugu.

Zorte on, ANA!!

Goierri siempre ha sido cuna de grandes ciclistas; ahora ya tenemos un nuevo nombre que añadir a esta lista, Ana Usabiaga. En los recientemente celebrados campeonatos de España ha logrado seis medallas de oro y una de plata; y además cuenta con un título de ciclocross. De seguir la actual progresión no descartamos que pronto veamos el nombre de Ana al lado de otras grandes leyendas del ciclismo.

HOLLYWOOD TXIKIA

Lau, hiru, bi, bat, ekin!! Jakintza ikastola Hollywood txiki bihurtu da egun batzuez.

Nork esango halako ume txikiek honelakorik egin zezaketenik! LHko 3. mailako ikasleak aritu dira egiteko honetan. Filmaren zuzendari izan dira, aktore eta aktorea, editore, grabatzaile, gidoigile... Izugarri motibatuta aritu dira lanketa honetan eta urduri oso grabaketako momentua noiz iritsiko zain. Nolako irribarre zerien aurpegietatik lan honen ordua iristen zitzairenean!

Lanketak helburu ezberdinak zituen: IKTKo kompetentziak, ahozotasuna, gorputz adierazpena eta batez ere, ikasiz ondo pasatzea. Grabazio aurreko prozesua luze samarra egin zaien, taldeak antolatu behar baitziren, filma



zehaztu, gidoia prestatu, filmaren storyboard prestatu, eszenak zehaztu...eta... grabazio garaia! Grabazioak ordenagailuetara pasa, editatu, eta horra hor emaitza!

Interneten sartu eta hor duzue aukera familiariko giro goxoan gure "Hollywood Txikia", ikusteko. Ea gogokoak dituzuen filmak!

A la manera de las más grandes estrellas de Hollywood los alumnos de tercero de Primaria han dirigido, producido e interpretado una serie entretenidos filmes para disfrute de todos nosotros. El proyecto se encuadra dentro de las competencias IKT, comunicación oral y expresión corporal. A destacar el entusiasmo y la ilusión con la que han tomado parte todos ellos.

"EA 21- UDA GARAIAN URA ZAINDU ETA GOZATU"ra

Ikasturtean zehar, Haur Hezkuntzatik hasi eta Batxilergora arte, hainbat ekintza burutu ditugu uraren erabilerraren inguruan bai ikastetxe barruan, eta bai herrian zein etxeetan ere, eta azken hau zuen laguntzari esker.

Zuen seme alabek Arriaran urtegia, Legorretako araztegia, herriko estoldak eta parkeetako iturriak aztertu dituzte, besteak beste. Bestalde, herritarren ohiturak galdeketa bitartez ezagutu dituzte, eta zenbait zerbitzutako arduraduni esker (kiroldegia, lorazainak, kale-garbitzailea barne) ur kontsumoari buruzko hainbat datu jaso dituzte. Modu berean, gure inguruko erreketako egoera gertutik aztertu dute (Mariaratz eta Arkaka).

Hori guztia landu ondoren, gure ikasleekin hainbat konpromisoa hartu ditu-



LH 4ko ikasle-irakasleak Arriarango urtegian

gu eta herriko beste ikastetxeetako ikasleekin adostutako proposamenak EA 21ko Udal Audentzian alkateari azaldu zaizkio.

Al igual que el resto de los alumnos de la ikastola, los integrantes de cuarto de Primaria han venido realizando durante todo el año una serie de actividades en torno al consumo y utilización del agua.

Han visitado el embalse de Arriaran, la purificadora de Legorreta, el sistema de alcantarillado... han tenido diferentes encuentros con responsables municipales del servicio del agua. Con todos esos datos han elaborado un plan y adquirido unos compromisos que con el consenso del resto de los alumnos de la localidad han sido llevados a una Audiencia Municipal dentro de EA21.

Angel Cuerdo, gure bidaiaria

Gure ikasleak kazetari (eta hain trebeak) bihurtzen ari zaizkigula ikustea oso pozgarria zaigu, euren nortasun sendoa erakutsi, eta geure inguruko zenbait pertsonai interesgarri ezagutuko aukera ematen digutelako.

Irakurri besterik ez dago Xabi Mendezek Angel Cuerdori egindako elkarrizketa, Jakintzako blogean datorrena, eta hemen agertzen duguna, jende gahiagok goza dezan bion gora-beherekin.

Xabi Mendez:

Angel Cuerdo Tolosan jaio zen 1973an. Txikitatik abenturazale sena pizten zaio eta duela urte dezente hasten da txikitatik datorkion grina hori ase nahian. Horrela, azken urteetan milaka kilometro egin ditu bere lagun kuttunenarekin, bere piraguarekin, alegia. Horretaz gain, lurralde ezberdin ugari bisitatu eta bertako jende mordo bat ezagutu du. Anjelek, bere bidaiak direla medio, bizimodu ezberdinak ulertzea erdietsi eta munduak ezkututzen dituen leku miragarriak sekulako erreportajeen bidez irudikatzea lortu du. Esperientzia asko bizi izan ditu, nola harrigarriak hala arrisksuak.

Bidaiatzeko zaletasun hori noiztik datorkizu?

Ni hamabost urterekin hasi nintzen bidaiatzen. Lagun talde baten artean antolatu genuen bidaiatxo bat eta hamabost urterekin badakizu... Ni Tolosakoa naiz, eta tolosarrontzat kanpoko guztia da handia. Londrerako bidaiak antolatu genuen. Hori izan zen nire hasiera.

Munduan zehar bidaiatzeaz gain, gure ikastolan irakasle zara. Zer duzu gustuko irakastea ala mundua ezagutzea?

Biek ematen dizute aukera gauzak ezagutzeko, ezta? Azken finean, bidaiatzea gauzak ezagutzea da. Badirudi hemengoa beti ezagunagoa dela eta, halere, askotan ezustekoak izaten dira. Baina kanpora joaten zarenean, ezustekoak biderkatu egiten dira. Indiara joatean, esaterako, eguneroko daukazu zerbait benetan harrizten zaituena...

Zerk bultzatuta ikasi zenuen irakasle izateko?

Beno, zuetako askok bezala, zuek ere Batxilergo 2. mailan zaudete, nire garaian ere aukeratu egin behar genuen ondoren zer egin. Eta ni ikasle nintzenez, zer nuen gustuko momentu hartan?



Xabi eta Angel

Gogoratzen dut aukeraketa zaila izan zela, baina konturatuta nengoen gustu-gustuen matematika-ko ariketekin ibiltzen nintzela, eta beste gai batzuk ez nituen hain gustukoak. Eta horrela hasi nintzen matematika ikasten. Matematika ikasi ondoren, hurrengo pausoa lanpostu bat bilatzea izan zen eta hementxe erori nintzen, Jakintzan.

Hainbat bidaiak egin duzu zure bizitzan zehar: Islandiara, Nilora. Bidaiak horietatik guztietatik zein da zuri gehien gustatu zaizuna, eta zergatik?

Ba... denak ditut gustuko. Denek eman didate zerbait, zerbait handia, itxura ezberdinetan. Baina, agian, pasa zitzaizkidan gertaera aldetik, gertaera mordo bat, tokiak berak daukan bizitasuna aldetik, India aukeratuko nuke. Bakarrik egiten nuen bigarren bidaiak zen, ETBrako dokumental bat egin behar nuen eta Ganges ibaia zeharkatuko nuela erabaki nuen. Eta benetan oso esperientzia sakona izan zen arrazoi askorengatik.

Badakit, 2004ko abenduan, zure emaztearekin batera Tailandian zinela, tsunamia gertatu zela. Nola harrapatu zintuzten egoerak? Zer egin zenuten momentu hartan?

Nahiko gogorra izen zen. Nire emazteak eta biok nik urtebeteko eszedentzia hartu genuen lanean eta hara abiatu ginen urte hori hastekotan. Lehenik Tailandiara. Han kanpoko bisatu guztiak egiten zizkiguten bitartean, gure buruari sari txiki bat ematea erabaki genuen. Paradisuko hondartzak horietako batera joan ginen eta orduan gertatu zitzaigun tsunamiarena. Imajinatu zure ametsetako bidaiak hasi bezain pronto, lehenengo egu-

netan, honelako txikizkia gertatzen dela. 300.000 hildako eta, uff... Bada, kasuistikaren zorteagatik edo ez dakizu zergatik, zuk bizitza salbatzea lortu baina beste inguruko asko hil egiten dira. Orduan, egun dezente egon ginen hortxe buruhauste batean: zer egin, zer ez egin, berriro itzuli, jarraitu... Azkenean, moto bat alokatu eta Tailandia osoan zehar moto harekin ibili ginen. Eta begira, lagundu egin zigun...

Ruben Escuderokin batera, Danubio ibaia zeharkatu zenuela jakin dut. Zergatik egin zenuen ibilaldi hau berarekin? Zer ahiago duzu: lagun batekin joan ala bakarrik?

Beno, bakarrik bidaiatzearena izan da nolabait nik inoiz planteatu ez dudana. Nik bidaiatu nahi izan dut beti. Orduan, aurreko urtean Islandiara joan nintzen. Eta hurrengo urtean, EITBen dokumental bat planteatu nuen: Danubioren jaitziera. Lagun hau, Ruben, nirekin batera egitera animatu zen. Zoritzarrez, bera lesionatu egin zen, oraindik ere bostehun kilometro bakarrik eginda geneuzkela, Austriako mugan. Berak ezin zuen jarraitu. Zer egin? Utzi dena eta etxera bueltatu edo jarraitu? Konpromisoak zirela-eta (patrozinatzaileak, telebista) segitzea erabaki nuen. Hurrengo herria Austria zen. Austriak ere eskaintzen ditu nolabaiteko aukera batzuk, eta erabaki nuen Austriara arte saiaturiko nintzela bakarrik joaten eta gero ikusiko nuela. Eta pixkanaka-pixkanaka bidea aurrera jarraitu nuen: Austriaren ondoren, Eslovakia, Hungria, eta berriro ere bertako jendea, egunerokoa... Askok lagundu zidaten.

Herri batera iristean, jendeak nola hartzen zaitu. Laguntza eskainiz ala pertsona bitxizat hartuz?

Beno, bitxizat beti hartzen naute. Hiri hauetatik zenbat eta kanpago zoazenean zu zara bitxia, kanpotarra zarelako. Leku batzuetan, turismo lekuetatik urrun daudenez, kanpotarrak ez dira ohi-koak eta normala da bitxizat jotzea. Baina, horrez gain, betidanik gizaki eta kultura ezberdinetan egon dira kanpotik jasotako loturaren bat. Eta joaten nintzen tokietan, baserrietan, herri txikietan horrela izaten zen. Lehenengo harrera beti berezia zen, batez ere, herri txikietan. Kanpotik etorria nintzen, baina horrek ez zuen axola, beti modu egokienean ongietorria ematen baitzidaten eta nik horixe ikusten nuen.

Poco a poco también nuestros alumnos están convirtiéndose en experimentados periodistas. Prueba de ello es la entrevista que Xabi Méndez ha realizado a Ángel Cuerdo, simultáneamente profesor de nuestra ikastola y conocido aventurero. Angel nos pone al corriente de sus impresiones en aquellas primeras experiencias (Lon-

dres, Islandia, Nilo). Luego hace un repaso de otros viajes y sus exigencias (India, Tailandia). Deja un hueco para recordar sus vivencias durante el tsunami que arrasó las costas asiáticas. Y finaliza ofreciéndonos su visión particular sobre el mundo de la enseñanza y sus aventuras a través del planeta.

OHOREZKO MATRIKULA

Ez da giro gaur egungo gazteekin!

Bada gaur egungo gazteriaz kezkatzen denik, halere bagara askoz baikorragoak garenak ere; agian urtez urte ikusten baitugu gure ikasle guztiak beraien etorkizuna bideratzen goi maila-ko edo unibertsitateko ikasketetan.

Aurten ere Batxi 2koak badoaz eta ohitura denez EHUak eskeintzen dizkigun Ohorezko Matrikula lortu dutenekin, Eñaut Agirre eta Eneko Novorekin, solasalditxo bat izango dugu:

Kaixo bikote, zorionak!

Zer bururatzten zaizue helduei "Ez da giro gaur egungo gazteekin!" entzuterakoan?

Eñautek: "Ez zait iruditzen helduek benetan halakorik pentsatzen dutenik. Agian hainbat gauzatan harrituko ditugu, onerako zein txarrerako, baina esaldi hori ohituraz esaten dutelakoan nago. Berdin-berdin entzun genezake esaldi hori poztasunean zein haserreardian, besterik gabe esaten duten seinale."

Enekok: Nik zentzu negatiboan ulertzen dut. Nire ustez momentuko haserrea adie-razteko besterik ez dela iruditzen zait. Egungo gazteak beste belaunaldietakoak bezain kapaz edota kapazagoak gara, gehienbat ba-liabide gehiago ditugulako. Esango nuke esaldi famatu hori historian zehar heldu guz-tiek esan dutela noizbait.

Hurrengo egunetan Hautaprobak dituzue. Erroka handia al da zuentzat? Zergatik?

Eñautek: Lekuz kanpo dagoela iruditzen zait. Erroka bat da noski, baina hutsala. Norberak



erakutsi beharrekoa urtean zehar erakutsia du, eta hiru egunetan halako azterketetan.

Enekok: Guztiz bat nator Eñautekin. Hiru egunetan egindakoa ez da bi urtetan egin dugunarekin konparagarri. Erroka? Medikuntza egin ahal izateko media ateratzea besterik ez da, nik pertsonalki hori dut buruan.

Biak medikuntza! Zer dela eta? Nondik dator kizue zaletasuna?

Eñautek: Egia esan ez dakit zergatik agian giza gorputzaren funtzionamendua ulertzeak betidanik erakarri nauelako izango da. Ikasketa gogorrek direla, baina uste dut "bokazioa" izanez gero lan benetan atse-gina behar duela.

Enekok: Zaletasuna? Egia esan, famili gauza bat da gehien bat. Ama medikua, anaia medikuntza egiten... Eragina nabarmena izan da eta hori jendeari laguntzeko gogoarekin elkartzu, izugarrizko gogoz ekingo diot etorkizunari.

Bi urtez geroztik ikastolan; oroitzen aipagarririk bai?

Eñautek: Hamarnaka oroitzen datozkit burura, onak gehienak. Txiki-txikitako oroitzenenik ez dut, baina behin San Inazio hasi ginenetik tarte bikainak pasa ditugu. Gogoan ditut adibidez, klasean izaten genituen zapaburuak, Zuazako irteerak. Eta noski, lagunak ere bai. Gelakide bikainak izan ditugu eta baita irakasleak ere.

Enekok: Momentu onak eta txarrak datozkit gogora. Urte luze hauetan aipagarriena ikasle-irakasle erlazio ona eta ikaskideen arteko lagunatasuna ikaragarria izan da, "Table tennis School" eta horrelakoak betirako geldituko dira memorian. Hemendik urte batzuetara irribarretxo bat eragingo didate, hori da ikastolatik atera dudana gauzarik aipagarriena.

Etorkizun bikaina benetan! Zorte ona arrakasta opa dizuegu zuen ikasketetan.

Eñaut Agirre Eneko Novoren sideo, este año académico, los alumnos que han obtenido las mejores calificaciones de Bachillerato y con ello se ha hecho acreedores de la matrícula de honor otorga la UPV.

En la entrevista realizada nos ha contado de manera como abordan la selectividad, a que no le ven otra función que la de obtener la media con la que acceder a la facultad de medicina.

Por nuestra parte, no nos queda sino felicitarles por su dedicación y deseo de ser mejor. ¡Suerte!

IKASTOLAREN EGUNA

Kaixo Jakintza, zer moduz lehengoan? Ondo ezta?

Ekainak jantzi berriak estreinatzearekin batera, gu, guraso, ikasle eta irakasleok, zure eguna ospatzera irten ginen kalera. Bai ederki ospatu ere!

Eguna euripean esnatu arren, ez ginen kikildu, ez genuen inork huts egin nahi, denok egon nahi genuen zurekin. Izan ere, barne kilimak adierazten zigun egun hori egun berezia zela, zure eta gure eguna. Zer ez zen han! Argazki erakusketa, pailazoak, abesbatzaren emanaldia batetik; bestetik, dantzariak, abeslariak, bertsoak eta antzerkia; ezin ahaztu, herri kirolak, futbol partida eta abar luzea.

Poztuko zinen irakasle erretiratuei egin zitzaizen omenaldiarekin, ezta? Urte luzeetan zure ibilbidean bide-lagun zintzo izan zirenak ere, ez zuten kale egin.

Ondoren, bazkaria, kontu zaharrak eta berriak astintzeko une aproposa. Beno, ahaztu baino lehen, mila esker hain bazkari goxoa prestatu ziguten guztiak.

Azkenik, dantza saioa. Biharamunean azaldu ziren bezperako ajeak; dantza gehiegi egin izanaren ondorioa omen... ohitura

falta edo... Egun ederra benetan, zuk merezi adinekoa. ZORIONAK ZURI JAKINTZA ETA URTE ASKOTARAKO!

*Berrogei urte aurten badira
Jarri gaitzen atzera begira
Heziketari euskaraz ekin
Munduari begiratzen jakin
Eta begira
Bi mila ta zortziko distira
Zerbait heldu da bihotz erdira*

Zenbait oroitzen!

40 urte, a zer imajina. 4a, aulkia, patxada, azterketa, eztabaida eta hausnarketarako lekua; 0a, berriz, elkartasuna, etengabe mugimenduan dabilen gorpila. Zure begiradak horixe adierazten digu, lasaitasuna eta indarra. Urte askoan jarrai dezazula horrela.

MILA ESKER GUZTIOI!!!

Mi ikastola, nuestra ikastola el domingo uno de junio nadie quiso dejarte sola. Cuando, todavía bajo la lluvia, todos salimos de casa para pasar el día contigo se agolparon en nosotros un sinfín de recuerdos de estos años; cuarenta años que nos han

hecho fuertes, que nos han guiado por el camino del euskera, que nos han traído a este 2008 llenos de entusiasmo, que te han guardado para siempre un hueco en nuestro corazón. Por ti y para ti ¡FELICIDADES JAKINTZA!



1984. urtean jaiotakoak Lourdes Olazabal andereñoarekin

Altamira auzoa z/g
tfno. 943 16 05 40
faxes. 943 16 07 90
20240 ORDIZIA
ordizia@ikastola.net

